

JUAN MARI ABURTO BILBOKO ALKATEA IRALAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN INSTALAZIO BERRIAK IKUSTEN IZAN DA

- Udal zerbitzu hau Mozart plazako 10. zenbakian dago kokatuta, eta 18 profesional ez osatutako talde bat dauka; haien artean, gizarte langileak, gizarte hezitzaileak, psikologoa, bitartekaria eta administrariak.
- Udalak [11 oinarrizko gizarte zerbitzu](#) dauzka, uriko auzoetan banatuta, eta 203 profesional dabilta haietan pertsonen, familien edo herritarren beharrezko sozialei erantzuteko lanean.
- 2021ean, hiriburuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 80.601 pertsonendako zerbitzua eman zuten, 73.398 hitzordurekin.

(Bilbo, 2022ko apirilaren 29a).- **Juan Mari Aburto** Bilboko Alkatea Iralako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen instalazio berriak ikusten izan da gaur goizean. Udal zerbitzu hau Mozart plazako 10. zenbakian dago kokatuta, eta **18 profesional** ez osatutako talde bat dauka; haien artean, gizarte langileak, gizarte hezitzaileak, psikologoa, bitartekaria eta administrariak.

Alkateak eskerrak agertu dizkio taldeari bere konpromisoagatik eta profesionaltasunagatik, eta hau nabarmendu du: **"Gizarte Zerbitzu horiek gizarte kohesionatu baten oinarri dira, non herritarren funtsezko eskubideak jagoten baitira"**.

Oinarrizko Zerbitzu honek **6.920 hitzordutan eman zuen arreta, Irala eta San Adrianeko bizilagunentzat, 2021ean**. Profesionalak nabarmentzen dute iaz normalizatuz joan zela arreta, eta herritarrek bulegoetara bertara agertuz joan direla. Alkateari ikustaldian lagundu dioten langileek beren lana azaldu diote, beren ardurak agertu, artatzen dituzten kasuekin zerikusia duten kontuak xehatu, eta oso iritzi ona agertu dute lokalak aldatzeari buruz, zeren eta, haien esanetan: *"lagundu egiten baitu herritarrei arreta hobea ematen, leku egoki eta estetikaren aldetik atseginak direnez gero, eta taldea elkaturik, lanaren beraren eta esku-hartzeen eraginkortasuna hobetuz"*.

Ikustaldian zehar, Juan Mari Aburtorekin batera izan dira Juan Ibarretxe eta Iñigo Zubizarreta Gizarte Ekintzako Saileko zinegotziak eta Kontxi Claver Gizarte Ekintzako zuzendaria, eta udaletxeko udal taldeen ordezkari bat ere bai.

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK BILBON

Bilboko Udalak [11 oinarrizko gizarte zerbitzu](#) dauzka uriko auzoetan zehar banatuta. Guztira, 203 profesional ari dira Bilboko herritarren beharrei erantzuten, direla norberarenak, familiarenak edo sozialak, haien gizarte-integrazioa eta autonomia faboratzearen.

Gizarte-zerbitzu horiek dira **Gizarte Zerbitzuetako Sistemako lehenengo atea**. Profesionalen taldeek eskubide eta baliabide sozialen gaineko informazioa ematen dute, eta jendearen egoera baloratu eta bideratu egiten dituzte; eta laguntasun ekonomikoak tramitatzen, edota mendekotasun egoeran dauden pertsonendako, adinduendako, umeendako eta etxerik gabeko familia eta pertsonendako baliabideak tramitatzen.

2021ean, hiriburuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 80.601 pertsonendako zerbitzua eman zuten, 73.398 hitzordurekin.

ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOKO TALDEAK

Esku-hartze sozioedukatiboko taldeek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik egiten dute lan, eta euren ardura izaten dira **babesgabetasun egoeran erortzeko arriskua duten adingabeen** kasuak; hala, egoera zailetan esku hartzen dute, hala nola ezkontideen banantze egoeretan, adingabeek eskolara huts egiten duten kasuetan edo familiek ekonomia-baliabiderik ez duten kasuetan. 2021ean, Iralan, 590 pertsonari eman zitzaion arreta, eta urian, 2.550.

SARE SOZIALAK

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

EL ALCALDE DE BILBAO, JUAN MARI ABURTO, VISITA LAS NUEVAS INSTALACIONES DEL SERVICIO SOCIAL DE BASE DE IRALA

- Este servicio municipal, situado en la Plaza Mozart número 10, cuenta con un equipo de 18 profesionales, entre ellas, trabajadoras sociales, educadoras sociales, psicólogo, mediadora y administrativas.
- El Ayuntamiento dispone de [11 Servicios Sociales de Base](#) distribuidos por distintos barrios de la Villa con 203 profesionales que atienden las necesidades personales, familiares o sociales de la ciudadanía.
- En 2021, el conjunto de Servicios de Base de la capital vizcaina han dado cobertura a 80.601 personas con 73.398 citas.

(Bilbao, a 29 de abril de 2022).- El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, ha visitado, esta mañana, las **nuevas instalaciones del Servicio Social de Base de Irala**. Este recurso municipal, situado en la Plaza Mozart número 10 y que estrenó esta nueva ubicación el pasado mes de febrero, cuenta con un equipo de **18 profesionales**, entre ellas, **trabajadoras sociales, educadoras sociales, psicólogo, mediadora y administrativas**.

Al equipo el Alcalde ha agradecido su compromiso y su profesionalidad, y ha destacado que **“estos Servicios Sociales son la base de una sociedad cohesionada, donde se vela por los derechos fundamentales de la ciudadanía”**

Este Servicio de Base registró la cantidad de **6.920 citas de vecinas y vecinos de los barrios de Irala y San Adrián, durante el 2021**. Las profesionales subrayan que durante el pasado año se ha ido normalizando la atención y la ciudadanía se ha ido acercando de manera presencial a las oficinas. Además, el personal que ha acompañado al Alcalde en su visita le ha explicado su trabajo, sus preocupaciones, cuestiones relacionadas con los casos que atienden y han valorado muy positivamente el cambio de locales, dado que **“ayuda a atender mejor a la población, con espacios adecuados, estéticamente agradables y con el equipo unido, factor que mejora el trabajo y la eficacia de las intervenciones”**.

En el acto Juan Mari Aburto ha estado acompañado de los Concejales del área de Acción Social y la Directora, Juan Ibarretxe, Iñigo Zubizarreta y Kontxi Claver, además de una representación de los grupos políticos del Consistorio.

SERVICIOS SOCIALES DE BASE EN BILBAO

El Ayuntamiento de Bilbao dispone de [11 Servicios Sociales de Base](#) distribuidos por **distintos barrios de la Villa**. Un total de **203 profesionales** atienden las necesidades personales, familiares o sociales de la ciudadanía bilbaina, con el objetivo de favorecer su integración social y su autonomía.

Estos servicios son el **primer punto de acceso al Sistema de Servicios Sociales**. Los equipos de profesionales se encargan de valorar, informar y orientar sobre derechos y recursos sociales; tramitar prestaciones económicas, recursos para personas en situación de dependencia, para personas mayores, para infancia y familia y personas sin techo.

En 2021, el conjunto de Servicios de Base de la capital vizcaina han dado cobertura a 80.601 personas con 73.398 citas.

EQUIPOS DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA

Por su parte, los **Equipos de Intervención Socioeducativa (EISES)**, que trabajan desde los Servicios Sociales de Base, se encargan de los casos de **menores en situación de riesgo de desprotección**, e intervienen en situaciones complejas de separaciones conyugales, de absentismo escolar o falta de recursos económicos en las familias, entre otras. **En 2021, en Irala, se atendieron 590 personas y en la totalidad de la ciudad 2.550 menores.**

REDES SOCIALES

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)